

Euskal Herria Ekologiatik Eraikiz

Euskal Ekosistemaren
garapen demokratikoa
bideratzeko

ETORKIZUNERAKO GIZA AKORDIOA

EGA

-PROPOSAMENA-

Eguzki

© EGUZKI-ZALEAK
Edizioa: Eguzki- zaleak
Ronda 22 - 1 Ezk.
48005 - BILBO

(SIGUE la VERSION en el p... CASTELLANO)

Aurrean duzun testua hausnarketa luze baten ondorioa da, EGUZKI 1987eko ekainean sortu zen
luranean.

Orduz geroztik, hamaikatxo arazori aurre egin behar izan diogu lurraren defentsan. Borroka
ekologistak ireki dituen lan-esparru guzti guztietan aritu behar izateak, nolabait, oktibismora eraman
gaitu, Aktibismoa beharrezkoa da balna ez da nahikoa, askotan "Zuhaitzak basco izkutatzen du".
Zazpi urte hauetako esperientziak hainbat gauza erakutsi digu, Jasaten dugun krisialdi ekologikoaren
manifestazio guztiak elkarloturik daude: gaixotasun beraren sintomak dira.

Gaixotasun hori do manifestazio horien lotura **eta** sorburua, Izan ere, jasaten dugun garapen ereduak natur ballabideak hondatu eta sUntsitu egiten ditu, Naturari hondamendia ekartzeqz gain, insolidGlrio eta injusto ere bado, Hausnarketa kolektiboa izan do, EGUZKlren iharduerak lido argiak eta erabaki tinkoak behar ditu, Euskal Gizartean -gero eta desegituraketa sakonagoa jasaten duena- lan egiteko kontzeptu organizatibo partehartzaile eta plurala eskuratu du 'EGUZKlk, Hau honela, uko egin diogu irudi-estrategien "efektibitateari", herrian sustraiak dituE?n herri mugimenduaren aldekoa apostua egiteko.

Herri mugimendu heldua, imajinatiboa eta kementsua eraiki dugu, etorkizunerako alternatiba eskeintzeko gauza dena, Alternatiba honek inpotentzia eta, pasibltatearen menpe dauden indar sortzaileak ilusionatu eta mugiarazteko gai izan behar du, Hausnarketa irekia ere bodo. Eztabaida gizartean sortu beharra dago.

Hausnarketa tresna besterik ez do: indarrean dagoen garapen ereduak aldatzeko oinarriak sor ditzakeena, haln zuzen ere, Aldaketa posible ezezik beharrezkoa ere bodo, Euskal Her,riko ekosistemarentzako garapen eredu alternatiboa eraikitzea, beraz, Euskal Herria ekologiatik eraikitzen hasteko bidea do, Lan eskerga, zalantzarik gabe. Hona hemen geure ekarpena!

AURKIBIDEA

1. Hitzaurrea	Pag. 7
2. EGA lertarako?	Pag 8
3. Zein da EGAREN balilko markoa?	Pag 9
4. Demokralia: Lan ardatla	Pag 10
5. Lekuan lekuko bioaniltasuna	Pag 11
6. Nolako demokralia?	Pag 13
7. Ardatz ekologikoak	Pag 14
7.1. Euskal Herrirako ardatl ekologikoak	Pag 14
7.2. Ardatz ekologikoak mundu manan eta	Pag 18
garapen demokratikoa	
8. Ekologia eta ekoilpena	Pag 20
8.1. EGAREN ikuspegia	Pag 20
8.2. Ekologia eta ekoilpena	Pag 21
9. Lanaren munduko ardatza	Pag 23
9.1. Gizarte eta lan garapenerako esparru berria	Pag 23
9.2. Dagoen lanaren berbanaketa	Pag 25.
10. Lehen sektorea	Pag 28
10.1. Euskal Herriko kostaldea	Pag 28 .
10.2. Euskal NekazaritzQ	Pag 30
11. Euskal kultura eta garapen ereduak	Pag 35
11.1. Balore dominanteak vs. balore emergjenteak	Pag 37
11.2. Kultura: erabiltzeko balioa. truke-balioa	Pag 39
11.3. Euskara: sustraia eta oii1arriak	Pag 40
11.4. Antropologiari begirg Pag 41
11.5. Emakumea eta matriarkalismo komunalista	Pag 45

1 . Hitzaurrea

Euskal Herriko mugimendu ekologistan -muhdu osoan ingurugiroaren defentsan lan egiten duen mugimendu heterogeneoan bezalaondotxo dakigu ezin izango diegula aurre egin gaurregungo garapenaren ondorio negatiboari baldin eta eskuharmen-ereduak zabaldu eta eraldatzen ez baditugu. Hainbat gizarte-mugimenduk -ekoizpen-egiturei loturik daudenean, hain zuzen ere- dagoeneko planteatu dute muga sektorialak gainditzearren beharra. Horrela egin ezean, nekez aurre egingo diegu herrialde guztietan dauden arazo larriak.

Lurreko ekosistemen okertze progresiboarekin batera, nazioarteko garapenaren zutabe izan den ekoizpen-ereduaren krisialdia agertu zaigu. Entrepresa transnasionalek etoestatuarteko erakundeek porrot , egin dute egoera honi aurpegia emateko orduan.

Euskal Herrian, guzti honez gain, ekoizpena eta giza harremanak arautzen zituen eredu historiko baten amaiera dramatikoak ikusi ahal izan dugu. Gainera eredu honen gainean eratu da orain arte Hegoaldeko garapen osoa. Madrilen, Parisen eta Bruselaren, politika finantziario eta estruktural zehatz bat erabaki dute:ekoizpen sistemaren berregituraketa bat, azken finean. Hemengo botere ekonomikoak jokoan kanpo gelditu dira, zer egin ez dakitelarik.' Euskal Herriko EGA proposatzen dugunean, lehen aipatu ditugun muga sektorial guzti horien desagerpena ari gara proposatzen. Honetarako, hainbat abiapuntu behar dugu halaberrez: ikuspegi orokorra eta erreferentziatzeko oinarri minima batzuk, alegia. Horixe da testu honen helburua.

Orri hauetan, ez dugu irtenbide edota proposamen zehatzik, ez horixe! Ez eta akordio prozesua antolatzeke ildorik ere. Gure asmoa ez da izan herri honen egoera ekologikoaren azterketarik egitea. Geuk, geure aldetik, badakigu baliabide ugari dugula: gizabaliabideak, gehienbat. Honek eragin lkaragarria izan dezake bestelako ongizatea sortzen: habitat-arekin orekan egongo dena, hain zuzen. Diru-baliabideak, bestalde, oso gaizki bideratu dira: estatu espainolak eta frantsesak milaka miloiko kanpo zorrak dituzte, administrazio erregional elkorren eta euren euskarri politikoen egitura zaharkituak mantentzen tamaina bereko zarrastalderla eragin dute. Baliabide guzti hauek beste era batean erabiliz gero gaur egungo egoera tamalgarria eraberritzeko gaitasuna izango lukete. Leku ; askotanjarri behar da Indarra: formakuntza zientifikoan, Ikerkuntzan, euskal ,hiritar guztioi lanposturako sarbidea bermatuz (nork bere ahalmenaren arabera), alsia eta sorkuntzarri bide berriakzabalduz" .. Herri hau prest dago borroka eta lanerako. Lemoliz ixtea lortu zuen. Bestelako esperientziak ere izan ditu. Guzti horiek zerbait berri sortzen lagundu behar digute: aurrerapen basati honen aldaketa nahiduten gizarte mugimenduentzat itxaropentsua eta lorgarria izango den zerbait, alegia. Horrelakorik lortzeko lanari ekin behar zoio. Lehen urratsa eztabaida zabaltzea izango da.

2~ EGA zerfarako?

Gaurregungo garapen-ereduak oso arazo larriak sortu dizkio Euskal Herriari. AHT, Superportua, arrantza-sektore artisanala eta nekaza sektore zati hondori baten desagerpena, ohizko Industria-egituraren suntsiketari, langabezi estrukturala zein lanaren behinbehinekotasuna, lurraldearen berrantolaketa interes pribatuaren arabera, basoen egoera,,, guzti honi aurre egin beharko dio planeta osoak, guzti honi eta askoz gehiagori. Bi errudun dago nagusiki: garapenaz dugun kontzeptzioa batetik eta honi loturik dauden instituzio eta egiturak bestetik, Gure gizarte mugimenduek, behin baino gehiagotan, proiektu suntsitzaile guzti hauek oztopatu eta baita geldiarazteko ere duten gaitasuna frogatu- dute, bai eta proiektu hauek amalgama instituzional-estruktural horretatik datozenean ere, Hala ere, herrietarako asko lagundu diezaguke ikuspegi orokor bat eskuratzeko, Gizarte akordioak hainbat lan-ardatz ezberdin sor dezake: denak

elkarlotzerl asmatu behar dugu,
Hau da, gehienbat gure proposamena gizarte mugimendu eta erakunde guztioi helaraztearen helburua, Hausnarketa bultzatu nahi dugu, Ondo dakigu hausnarketa hasten den une berean oso gertu . egongo dela EGAREN sorrera, Hortik aurrerakoa, berebilakaera, zuen eskuetan egongo da: Euskal Herrian bestelako aurrerapena posiblea dela sinesten duzuen guztion eskuetan, hain zuzen ere,

3, Zein da EGAREN balizko markoa?

Ez diogu gure buruari ziririk sartu nahi. Oso ondo ezagutzen dugu Euskal Herriko errealitate soziala, eko/ilomiko, kultural eta politikoa, Orain arteko garapen-prozesuek kalte handia egir) diote habitatari. Badakigujakin, hainbat kasutan, kaltea itzuliezina dela, Ohartzen gara, halaber, euskal gizortea Europako Batasuna buru duen sistema metropolitano baten zatia besterik ez dela eta honek gure herria lotu nahi lukeela bere lan .kritiko eta sortzailea ekiditearren, Gure ekonomia gutxiengo baten menpe dauden prozesu transnacionalei dago loturik, Gure kultura erase askoren jomuga, Gure nazioarteko harremanak bi estatu arrotzen eskuetan, Guzti honez gain, badugu bestelako arrisku bat ere: geure abotsaez entzunaraztea, geure eskubide horri uko egitea, alegia, (Garapen eredu honek finkatu eta indartu egin du «demokrazia» deitu ohi diogun sistema instituzionala, Sistema hau, bestalde, gizarte mugimenduen ekimena itozteko edota integrazteko bitartekobihurtu da askotan.

Sistemak gizartea modu zehdtz batean eratu du Honen osaketak oztopatu egiten du mugimenduari kritikiko edota sortzaileen sorrera, bai eta edonolako prozesu sozialena ere. Masa-kultura, ohitura eta modak, kontrol mediatiko- eta eskolarra, oelaunaldi-sexu-familien egituraketa bera. Guzti honek oso eragin handia du Euskal gizarteak, beraz, desegituraketa-prozesu azkar batean dago murgildurik. Sintoma guztiak, behinik behin, horren adierazleak dira: gizartearen I «europarizazioa», bizimoduaren aldaketa, balore indibidualak kolektiboaren gainetik egotea, komunikabideen erdina, oo.

Norbanakoa eta estatu «ahabguztiduna»-ren arteko zubi izan diren elkarrekin desagertzeko zorian daude. Den-d.enak oztopoak dira habitat -ak hainbeste behar dituen prozesu demokratikoak garatzeko orduan.

Proposatzen dugun EGA honen esparrua, hasiera batean, gaurregungo garapen-eredua gainditu nahi duten erakunde guztietara zabaldu nahi dugu, bai eta gure gizartearen krisialdiari aurre egiteko indarrak biltzen dihardutenei ere. Eztabaida aberatsa bada, sortzailea eta itxaropentsua bada, berez eroriko dira hainbat muga sektorial eta pertsonala bide berriak eta zabalak irekiz.

4. Demokrazia: Lan ardatza

Oinarri demokratikoak izan behar dira EGAREN ardatza . «Demokrazia» hitzak, bestalde, zuen zentzua galdu du azken urteotan: oinarri demokratikoetatik urrun, instituzioen ereduarekin nahasten da behin eta berriro. Bi kontzeptu ezberdin behar dugu: «legalitatea» eta «legitimitatea». Lehena «munduko orden berria» deritzan monstruo horren barneko estatuak darabilte. Bigarrena, ordea, gizarte mugimenduen, ONGen, eta herrialde askotako hainbat organismoen oinarria da.

Mugimendu ekologistaren ustetan, porrot itzela izan zuten 1992n UNCEDek Rio de Janeiroan antolatutako «Lurraren gailurra». Bertan argi ikusi zen ekosistemarengandik -gizartertea bera dhaztu gabe- l sortzen den legitimitatea eta estatuak oinarritzat duten legalitatearen arteko kontraesan-a. Indarrean dagoen garapen ereduaren defendatzaileek bestelako balorazioa egiten dute. Jakina, bertan izenpetu ziren akordio eta aldarrikapenek ez dute zalantzatan jartzen

euren eredia. Are gehiago, indarberiturik atera ziren euren jarrerak. Euskal Herrian ere, urtetan jasan behar izan dugu gure gizartea eta habitat-a kudeatzen dituzten bi estatuen legalitatea. Urrunago joan gabe, horra hor autodeterminazio eskubidearen ukapena.

Autodeterminazio eskubidea, benetako demokraziaren oinarria izan beharko litzatekeena, bere buruari «demokrazia» izena ematen dion sistema batek zapaldua. Zapalketa honen ondorioak era askotakoak dira: legalak, errepresiboak, gizarte mailakoak, ekologikoak, kulturalak eta politikoak. Guzti honengatik inoiz baino argiagoa da -muga politiko eta instituzional guztien gainetik «demokrazia» kontzeptua berri beharra.

lido honetatik, ez ditugu militarizazioaren aurka eta intsumisioaren aldeko mugimenduen erreibindikazioak ahaztu behar. Mugimendu ekologistak, hasiera hasieratik bere egin ditu erreibindikazio hauek. Mugimendu hauek, bestalde, beste inork baino areago agerian utzi dituzte legalitatea eta legitimitatearen arteko kontraesanak. Lan ederra egin dute gaurregungo estatu-ereduen oinarri diren autoritarismoa eta militarismoari aurre eginez.

5. Lekuan lekuko bioaniztasuna

Demokrazia gizarte mugimenduaren ikuspegitik nola ikusten dugun azaldu aurretik, lekuan lekuko bioaniztasunaz hitzegin nahi dizuegu. Ez dugu uste mundua maila guztietan multzo sozial eta ekologiko homogeen bakar batek osatuta dagoenik. Ez etagutxiago ere! Gure ustetan, gainera, guztiz kritikagarriak dira horrelakotditalizazioak. Hasiera-hasieratik bereizketa bat egin beharra dago: lurraren drazo unibertsalak direnak batetik etQ lekuan lekukbak bestetik.

Lehenengoan drtean gizarte osoari eta lurraren ekosistemari dagozkienak daude, hala nola, klimaren aldaketa, eguratsa, eta estratosferaren kutsadura, oihanen'sLrtsiketa, etab Bi maila hauen arteko kontraesanak ekidin behar dira, izan ere, horrek ez gaitu inoro '1 eramango. Gogoratu beharra dago lehengo lema hura:

«orokortqsunean pentsatu baina eskualdean bertan eginlana», gogoratu eta gaurkotu.

Herri mugimenduak bere lana, bere borroka eta bereikerketak burutzeko behar-beharrezkodu lekuan lekuko bioaniztasuna kontutan hartzea. Berau ondo ezagutu. Inguruko ekosistema zabalagoekin duen lotura aztertu. Honela egin ezean, nekez planteatu lteke gaurregungo garapen-eredia aldatzeko alternatibarik .

. Bioaniztasunak natura eta ingurugiroa baino zertxobait gehiago hartzen du kontutan: munduko edozein herrialdeetan gertatzen diren giza fenomeno guztiekin du zerikusirik. Herri eta nazio bakoitzaren kultura eta ohiturak ere bioaniztasun horren parte dira, bai eta egoera soziopolitikoak berak ere. Habitat-ari loturiko hainbat eta hainbat arazok islada berezia dute egoera sozio-politikoan. Horro h~r, esate baterako, gure herriak Lemoizen kontra burutu zuen borroka.

Hau honela, bioaniztasun kontzeptuak bif:itza eta ingurugiroaren arteko lotura adierazten du Bioaniztasunak, beraz, herrialde edota zonalde bakoitzaren osotasuna, batasuna eta berarizko dialektika azpimarratzen ditu. Kontzeptu hau, gizartearen beraren garapen demokratikoari dago loturik.

Ekonomiaren internalizazioarekin, hots, merkatu eta ekoizpen-sistema bakarra eratzeko joerarekin bat datorren ideologia hedatu egin da muriduan zehar. Horren aurrean, guk espezifikotasuna eta egoera bakoitzaren berezitasuna aldarrikatu nahi ditugu fenomeno unibertsalen oinarritzat. Lekuan lekuko batasunak eratzen dituzten herri eta are gehiago nazioen autodeterminazioak eta autodisposizioak

.zerikusi handia dute bioaniztasun kontzeptuarekin.

Izan ere, bi faktore hauek borroka ekologistaren muina dira -eta kontzeptu bakar batean laburbil daitezke: autodeterminazio eskubidea, edozein estatu demokratikoren eskubide ukaezina.

6. Nolaka demokrazia?

Gaurrengoko ordenamendu instituzionala eta horren euskarri diren fenomeno politiko gehienak ez datoz bat guk «demokrazia»)z dugun kontzeptuarekin. Herriak beste m.odu batean ulertzen du «demokrazia») hitza. Lur osoko ON\$en esperientziek, bai eta gure herri honetan lan egiten duten herri mugimenduenek ere, ateak ireki dizkiete benetako prozesu demokratikoak garatzeko aukerei.

Estatuen legalitateak ez ditu asetzen hiritarren nahiak. Gero eta gehiago, beraz, hiritarrak -guztion interesa defendatu nahi badualderdien bide instituzionaletatik at kokatu behar du bere burua.

Zuzenbideak gutxiengo baten interesak defendatzen dituen bitartean, herri mugimenduaren lanak eta borrorikak kolokan jartzeak dituzte errepresentatibitate parlamentarioaren estereotipoak.

EsterE;lotipo horiek mozorroturik aurkezten zaizkigu: zenbakiak, portzentaiak, sistema proportzionalak eta hauteskunde legeak izateak dira bere mozorroa. Oso bestelakoa da erreality. Izan ere merkantilismo politikoan dute oinarria: botere ekonomikoan, komunikab'ideen kontrolan eta hiritarren manipulazio ideologikoan, alegia. Garbi dago, estereotipo horiek gero eta urrunago daude herri sektoreen benetako nahi eta beharretatik.

Ekologistok, bestalde, natura eta garapenaz dugun kontzeptzioari esker, bioaniztasuna eta ekosistemaren defentsan aritzera behartuta gaude halabeharrez.))Gutxiengo)) baf osatzen dugu non bait. Dena den, ez gaude bakarrik. Une erabakiorretan herritarren laguntza osoa izar ohi dugu estatu eta botereEI-sistemen kontrako borrokan. Ez da kasualitatea eredu «demokratiko») honen krisialdia ekoizpen eta merkatu sistemaren krisialdiarekin batera agertzea. Hiak batera jaio ziren eta garai honetan, hain zuzen ere, gertatzen ori dira ingurugiroaren kontrolko kalte handienak.

7. Ardatz ekologikoak

7.1. Euskal Herrirako ardatz ekologikoak

Hiritarrak hasi dira jabetzen Euskal Herriak jasaten ari den krisialdi ekologiko orokor honetaz. Ondorioz, kezka eta sentsibilitate berezi bat nabarmentzen da gizartean, berauek botereguneetara heltzen ez badira ere. Botereari legokioke egoerq larri honi erantzun egoki eta erabatekoa ematea. Hau, hala ere, ez da gertatuko. Gizartearen _ sentsibilitatea eta instituzioen politikaren artean dagoen disfuntzioak ateak itxi egin dizkie arazoakohizko bidetik konpontzeko aukerei.

Krisialdi honi, Hegoaldearen kasuan, ehun ekonomiko eta . produktiboaren berrantolamendua eta berregokipena gehitu behar zaizkio. Berregokipen honekiz,ango dituen ondorioak inoiz baino bortzitzagoak izango bide dira. Gure habitat-akjasoko duen eraso inflexio-puntu berria izango da, ziur askifituzullezinezkoa. Baliteke gure ekosistema eraberritzeko aukerak gero eta urriagoak izatea. Borroka ekologista, beraz, Lurraren biziraupenaren aldeko borroka da. Ekologismoa hainbat borrokaren erdigune bihurtuko da aurki; bertan botereen asmo merkantil.isten biktimek parte hartuko dutelarik. Gurea ezin da gutxiengo elitista baten borroka izan, bai zera, bere lurra defendatu nahi duen edonorena izan behar du Izan ere, zarama, urtegi haundi-maundiak, abiadura handiko trenak edota kirol-portuak baino zertxobait gehiago eskatzen diogu etorkizunari.

Puntu honetara ekarri gaituena ez da kasualitateaizan. Eraldaketa Euskal habitat-aren narraiadura jarraia izan da. Narraiadurak, dena den, zenboit fase izan ditu eta bakoitzak garai hartako boterearen interes ekonomiko eta sozialen araberako bilakaera izan du Horibai, den-denek izan dituzte ondorio larriak ekologia mailan.

Gauregungo gestorek beste eraldaketa bati ekin berri diote, oraingoa kualitatiboki are okerragoa izango dena: gure gizartean aurki hirugarren sektorea izango da nagusi.

Prozesu honek bi oinarri ditu: batetik, merkatua mundu mailan izaten ari den berrantolaketa eta bestetik, Europako Batasun mailan, lehen eta bigarren sektoreetan oraincote ohikoak izan diren iharduerak aide batera uztea. Orain arte arrantza, nekazaritza eta industria sektoreetan izan ditugun iharduerak bazterrarazi eta zerbitzu sektorea ezarriko digote. Honek diru publikoaren inbertsioa baldintzatuko duo Azpiegitura berriak, hauei begirako dituzten instalazioak, maila ertaineko turismorakoak, zama biltzeko eta stokatzeakoak ... Bi izango dira ondorio nagusiok. Aide batetik, hainbat ekinbide sozialetan behar-beharrezkoak diren diru-baliabideak murriztu egingo dira. Bestalde, oraindik aldatu gabe dauden zonalde gutxi horiek ere ezagutuko dituzte «aurrerapena»ren ondorioak.

Euskal Herrian, bestalde, nolabaiteko deskongestio selektiboa antzeman daiteke hirigune handietan, batez ere Bilbo Handian. lido honetatik, konurbazio-prozesua areagotzen ari da ohiko filosofiari jarraiki: zerbitzuguneak batetik, egoera ezin okerragoa jasaten duen periferia degradatua bestetik, eta azkenik superperiferia dentsitate gutxiko urbanizazio-guneak dirudunentzat bertan hainbat turismogune ertain ere egon ohi delarik. Guzti hori horrela mantentzea zerbitzu-sare zabala behar du (sarbide azkarreko errepideak, komertzio-guneak, estolderia, ur-zerbitzuak ...). Guzti hauean ingurugiroak kalte handia jasango du berritorea, bai hiriguneetan (bizi-baldintzak trakestuko dira) bai nekazaritza lurretan (gelditzen diren zonalde periferiko gutxi horiek ere hiritarteko dira). Euskal Herriko ingurune sozio-naturalak neke hondiz jasan litzake horrelako jokabideak. Kaltea handia izango da, beraz. Kaltea, bada, hiru ardatzen inguruari azter genezake:

*Ingurune naturalak jasoko duen kaltea:

- Garraio-sareen eraikuntza eta ezarkuntza. AHT proiektua, EAEko errepide plana eta ;Abrako superportua, tartean.

- Euskal Herria EUOPArako zuhaitz-hornitzaile bihurtuko da. Hazkunde azkarreko landaketak bultzatuko dira soilsoilik.

- Habitat-aren ekosistema preziatuenak kaltetuko dira konurbazio handiak urez hornituko dituzten urtegiak eraikiz. Bertako ura, gainera, hainbatetan Estatu Espainolera joango da -ltoizko urtegiaren kasuan, esate baterako-.

* Beste plano batean naturaguneen turistizazioaren arazoa duglJ. Horra h-r. esate baterako parke naturalen izendaketa. Bertan babesaren kontzeptua prostituitu egiten dute. Azken finean egiten duten gauza bakarra nekazalguneen hiritartzea besterik ez da. Gure kostaldean ere berdin-berdin egingo dute: interes ekologiko handiko ekosistemak kirol portuen bidez galbideratu.

Egiten dugun EGA proposamena hauxe besterik ez da: oinarri berriak behar ditugu, teoriko zein praktikoak, Euskal Herriko habitataren

garapen demokratikoa bermatzeko irizpide
sozio-ekologiko-ekonomikoak dituzten oinarriak, alegia.

* Prozesu politiko-sozial berriakjarri beharditugu martxan: ekologikoki bideragarriak diren proiektuak indartzeko, teknologia egokiak erabiliz eta erabakien kontrol demokratikoa ziurtatuz. (Bigarren puntuari dagokionez, ohartu behar gara teknika ez dela neutroa. Hau honela filosofia berri bat behardugu! parametro ekologikoen arabera neurtua. Honetarako, behar izanez gero, erabilgarri irudi dezaketen hainbat neurri baztertu beharko genuke -hala nola, deskutsatzeko neurriak- horien ordezkiz prozesu garbiak erabiliz.)

Hiru oztopo gainditu beharko dugu:

* Esparru administratibo nezialaren beten beharra. Honek energia eta ekonomiaren planifikatzeko gaitasuna, tresna eta baliabide egokiak emango dizkigu. Erabakitzeko . ahalmena behar dugula esaten dugunean, bestalde, tresna egokiak eskueran behar ditugula esan nahi dugu: datuak eta estatistikak, presioak, tresna exekutiboak, baliabide ekonomikoak, nazioartean merezi dugun lekua, botere teknologikoa etp abar ... Gaurregungo egoera bestelakoa da: hiru zatitan banaturik, oinarriko eskuharmenik gabe, datu orokor eta zehatzik gabe, erabakiak hartu ezinik, Egoera honetan arriskutsua liteke -ezinezkoa ez esateagatik habitat-aren garapen demokratikoa bultzatu nahi izatea.

* Bitartekoen faltari, bestalde, beste hutsune bat gehitu beharko genioke: herritarrek, elkarte eta kolektibo ekologistek, sindikatuak, elkartek, hau da i biztanle gehienok parte hartzeko bitartekorik eza. Guztion parte hartzea ziurtatu ezean, nekez lortuko dugu bizimodu, ohitura, mentalitate, interes zein ekoizpen egituren aldaketa kolektibo eta kontzientea. Izan ere, guzti-guztiek sustrai sakonak dituzte gizartearen materialitatean zein subkontzientean. Gauza gehiago ere aldatu beharko dugu: kontsumismoaren tradizioa, zarrastalakeria, kualifikaziorik gabeko bizimodua, halabeharrez kontsumitzera kondentzen gaituen bizimodua, 'besteak beste.

. *Lan handia da, aurretik lharduera teoriko inportantea eskatzen duena. Ez dugu, oraindik orain, horri aurre egiteko adinako ezagupenik, ez tresnarik ez giza baliabiderik ere. Dena den, aurrera goaz. Dena den, azpimarratu nahi dugu behar-beharrezkoa dela ahalegin berezi bat egitea bai aritlaketa mailan, bai indar metaketan eta bai kontzientziario lanean ere. Honela eginez etorkizunean lan horiei ekiteko prestakuntzaari gara lantzen. Hau da, beraz, euskal mugimendu ekologistak aurrean duen erronka: unibertitate eta ikerketa munduarekin batera helburu eta bitartekoen premiazko planifikazioa.

«Beharra» «kontsumoa», «bizitza-kaltatea» «O\sla» eta abarreko .~ kontzeptuek berdefinizio bat behar dute: bestelako irizpideak. Sortzearen dauden kontzeptu berriak hauen gainetik daude; zalantzarik gabe, baina hala frogatu beharra dago. Horiek ekarriko dizkigute hobekuntzak gizarte, lan, zein ingurugiroaren aldetik. Eztabaida teorikoen eskutik etorriko den praktika izango da, hain zuzen, kontzientzia sortu eta zabalduko duena. Horrexegatik dira gizarte mugimendu guzti-guztiak hain beharrazkoak: sortu, kritikatu eta eraiki ahal izateko irudimena behar dugu. Hona hemen praktika sozial honen alde egiteko hainbat arrazoibide:

1) Bizitza-kaltatea ezin da hain mugatuak diren ondasunen hondamendia ~ta zarrastalakeriaren arabera neurtu.

2) EguneroKo ongizatea deritzagun hori behar kontziente eta berau asetzeko behar diren bitarteko egbkien-artek6 orekan datza.

3) Kontsumoa ezin da izan ongizatedren neurgailua. BE?harrak asetzeko bide bat da, beSterik ez. . .

4) Bizi-baldintzak giza ahalmenaren garapen orekatsua araberan neur daitezke.

5)Norbanakoenjokabideak, ezinbestez, eragina dujokabide kolektiboan. ·Etorbizunean izango ditu ondorioak. Garapen integralaren bestelako hainbat irizpide ere aurreratu ditzakegu dagoeneko:

* T okian tokiko proiektuak' (Ahaztu gabe etika ekologistari dagokion ikuspegi solidarioa. Ikuspegi honen haritik lortuko baita oinarrizko beharrak -materialeak zein ez- asetuko dituen)

* Garapen teknologikoa: teknika «iraultzaileez» zein ohikoez baliatuz. Hau etxebizitza, energia, ondasun eta eligaien ekoizpenean aplikatu .beharko litzateke bereziki.

* Ingurugiroaren arazoari dagokionez, ikuspegi multidisziplinarioari eutsi egin beharko zaio. Arazoak era askotako ondorioak ditu: biologiko-ekologiko, ekonomiko eta sozialak. Natura eta gizakiak asmatutako ingurunearen arteko harremana batetik, eta gizakien arteko harremanak bestetik arazoaren parte bat ere badira.

7.2. Ardatz ekologikoak mundu mailan eta garapen demokratikoa

Mundu honetan.5.000 miloi biztanle baino gehiQgo bizi gara. Urteroko hazkunde % 1,6 da. Dena den, guztientzat adina elikagai dago. Are gehiago, guztiontzako elikagaiak egongo dira 15.000milaira heltzen garenean ere (gaurregun Holandak duen biztanlego-dentsitatea . bera).

Sistema sozioekonomikoaren garapena hainbat ardatz homogeen ditu herri guztietan: milaka biztanle goseak edota gaixotasunakjota (fisiko-psikikoak zein kulturalak) bizi dira.

I
L

Kezkagarria da, zalantzarik gabe. HonL gainera, ekosistemaren narraiadura -jarraia- gehitu beharko genioke: euri azidoak, hondakin toxikoak, ozono geruzaren arazoa eta luraren beroketa eta klimaren aldaketak. Zein da, beraz, baliabideak/teknologia binomioaren oreka oztopatzen duen kontraesana? Zerk galerazten digu arazoa behin eta betiko, erro-errotik, konpontzea?

Ekologistok hainbat kanpaina antolatu ohi dugu. Horietako asko arazo puntual eta bigarren mailakoei begira, hala nola, base eta oihanetak hondamendiak, desagertzearen dauden espezie defentsa, zonalde ahulen alde, ur baliabideak hobeto aprobetxatzeko eskatuz, energia ekologikoa edota nekazaritza biologikoaren alde. Borroka hauek guztiek oztopo bat aurkitu dute bere aurrean erabateko irtenbidea galeraziz, gehienetan demokrazia formalez mozorroturik gainera.

«Lurraren gailurra» izenekoa ere fenomeno horren adibidea duzue. Bertan Nazioarteko Orden Berridk bere benetako aurpegia erakutsi

zuen. Hala ere, organismoeta gizarte mugimenduen aldetik argi azaldu zen bertan alternatiba bideragarriak eraikitzeko borondatea. EGA horietako alternatibd bat izatea nahi genuke. Horregatik ahalik eta sektore zabalena inplikatu nahi dugu: lekuan lekuko garapen demokratikoaren beharrek lagunduko digu ute proposamena zehazten. Honetan ere, lan munduak protagonismoa hartu behar du .

Gaurregun langabezia garapen demokratikoaren problematikari dago loturik. Hainbat pertsona lan-mundutik ate egotea txanpon beraren beste aldea besterik ez da. Bai langabeziak bai habitataren aurkako erase merkantilistek oinarri bera dute: GAITen akordio horien bidez; lez merkatu eta produkzioaren bqnaketa eZdrtzen duen oinarria.

Ekoiogistok badakigu FMI, Banku mundiala eta tankera bereko botereguneak gure etsaiak direla. Horien kontra, estatuen politika ekonomikoaren kontra, transnazionalen kontra borrokatu behar dugu. Besteld ezin izango dugu arazoa konpondu. Azken firiean horiek denak dira Brazil, India edota Rusian urtegi haundi-maundiak eraiki nahi dituztenak, energia kutsatzaile eta zarrastela bultzatzen dutenak. Hauek guztiek dakarzkiguten kalteak zenbatu ezin dira:

pestizidak eta fertilizanteen kutsadura, Amazonia eta E~BBetako Pazifikoaren kostaldean biomasaren eragin duten hondamendia, gorraio soro zentzugabeen hedakuntza, garraiobide antiekologikoak, bioteknologiaren kontrola, espazioaren ustiriaketa?, ehiza eta arrantzarak metodo hondatzaileak, landare eta animalien desagertzea, itsasoak hondakin toxikoen biltegi' Qihurtuak, elikagaiei buruzko politika pribatu eta estatalak, paisaiaren aurkako erasoak, hiritartze basatiak,

Garapen demokratikoaren kontrako botereguneek dute errua osoa -FMletan Orden berriaren estatu gidariak buru direlarik- Oinarri demokratikoen ginetik etekin pribatuari eta merkatuaren legeei -eman diete lehentasuna. Oinarri demokratikoen ardatzak, bada, bi dira: lekuan lekuko bioaniztasuna eta pertsona eta herri bakoitzaren beharrak asetzera.

8. Ekologia eta ekoizpena

8.1 . EGAREN ikuspegia

Gaiari heldu aurretik, gogoratu behar dugu honako proposamena ez dela plataforma bat (ez politiko, ez tekniko, ez ideologikoa) baizik eta Etorkizunerako Giza Akordio baten eztabaida. Bere helburua, beraz, ildoan inguruko ikuspegi eta ikuspuntu ezberdinak jorratzea da gizarteari kaltegarri zaion garapen ereduaren gainditzeko asmotan.

Epe luzeko prozesua izango da. Hala uste dugu behintzat. Etorkizunerako Giza Akordioa hasierako urratsa besterik ez da. Urrats inportantea, hala ere, berak bilduko baititu gizarte mugimendu ezberdinen ahaleginok eta berak ezarriko baititu elkar ulertzeko eta elkarlanerako oinarriak.

Estatu espainolak bultzatzen dituen itun-sozialei ihes eginez, garapenaren benetako arazoei ekin behar diegu. Argi dago zer den egin behar ez duguna: krisialdiari nora bide bakarreko irtenbideak =

ematen dizkieten planteamenduak onartu; politika supranazional wharkitueen menpe geratu; Maastricht-eko filosofiaren araberako an, ekoizpen eta merkatu banaketa onestu; Bundesbank, europako : Jurtsak" FMI, Banku Mundiala eta GAITleko akordioaren politika : inantziarioari kasu egin.

,
; arapenaren arazoei ikuspegi ekologistatik begiratu, garbi dago Jhiko formula korporatiboeta sektorial zaharkituak ez direla lahikoak oinarritzeko arazo sozio-ekonomikoei aurre egiteko~

'Garapenaren inguruan agertu diren aldagai berriak oso kontutan hartzekoak dira. Batzuk, negatiboak dira: megakutsadura prozesuak (hondakin toxikoak, euri azidoa, ozono geruza, lurraren beroketa) Beste batzuk, ordea, positiboak: ondasun eta zerbitzuen ekoizpenaren inguruan sortu berria den mutazio teknologikoa, esate baterako.

Hurrengo atalari «Ekologia eta Ekoizpena» izenburua jarri dibgu. Bertan lana eta' ekologiaren munduen elkarlotura zuzenak eta arazo amankomunez arituko gara. Herri honetan bertako hainbat planteamendu berriak izang<? dira.

8.2. Eka/agia 'eta ekoizpena

Herri metropolitanoetan azken urteotako esperientziek argifrogatu dute Ingurugiroaren babesak eta susperketak lana sor dezaketela. Ingurugiroaren hondamena da, beraz, lanpostuak kolokan jartzen dituen.

Hainbat entpresari dinamikok tranpa berri bat jarr'i nahi izan digute: teknologia berriak bilatu beharrean edota garapen ereduarekin kritikoak diren planteamenduak onartu beharrean, kutsadura. garbitzeko teknologiarik ekin diote, baita bide batez negozio ederra . egin ere. Entpresari hauek, gainera, ingurugiro mailako ihardueren propaganda egin ohi dute -gaizki bideratuak egonda ere-. Zenbaitetan sindikatuak beraiek ere tranpa horretan erori izan dira. Lan munduaren arazoei aurre egiteko bestelako ikuspegia hedatu: behar dugu: erabateko aldaketa bat. Gizartean kultura ekologia sortu behar da, alegia.

Munduan prozesatzen den lehengaiaren kopuru orokorra gut><,itzen den heinean eta kontsumitzen diren materialak ordeztu ahala, aldaketa sakonak gertatuko dira lan merkatuan. Arrisku bat egongo qa, ordea: gerta daiteke langileen hainbat organismok jarrera atzerakoiak agertzea. Horrek, bestalde, bideak itxiko lizkieke herrialde oso-osoetako garapen demokratiko eta kompetitiboagoi.

Hainbat herrialdetan energia ez-berriztagarrien ustiriaketa eta garraio , kutsatzaileen aurkako politika berriak sortuko dira. Leku horietan ekoizpen eta prozesamendurako teknologia ez-kutsatzalleak . jarri beharko dira martxan, ondasun ~z-kaltegarriak eta iraunkorrakoak bultzatu beharko dituzte. Bertan, epe ertain eta luzean, ahalmen ekonomiko maila handiagoak lortzeko oinarriak sortuko dituzte. Kosteak, hala ere, printzipioz handiak izan daitezke. Dena den, uste dugu lan egituraren ikuspegi ezberdin baten bidez posiblea dela kosteak gizarte osoak hartzea bere gain, langabezia handitu gabe. Hurrengo atalean honetaz hitzegingo d.ugu. Honez gain, zen bait sektoretan, ingurugiroaren babesera hurbiltzeak lanpostuak sortuko ditu. .

Energiaren sektorea: Energiaren kontsumoa eraginkortasun handiago baten bidez gutxitzeak lanpostuak dakartza: energia eramateak -ohizko bideakzein berriztagarriak erabiliz- bqino lanpostu gehiago ziur aski. Dena den, errekurtsio berriztagarriek ohiko industria energetikoek baino lanpostu gehidgo sortzen dute. Izan ere, kapital gutxiago eta langile gehiago bel;lar izaten dute.

Eraikuntzen klimatizazioa: Gizarte-garapenari oso loturik, lanpostu asko sortzen dituen iharduera duzue honako hau. Estatu metropolitanoetan,esate baterako, -eta behar duen inbertsioaaa kontutan hartuta ere- kapitolarren beste edozein proiektuk baino lanpostu gehiago sortu zituen.

Eraginkortasun energetikoa bultzatuz eta herrialdean bertan sor daitezkeen errekurtsio berriztagarriak erabiliz abantaila handiak l.

izango dituzte gaurregun energiaren inportazioaren menpe dauden herrialdeek. Politika estatalek gero eta gehiago hartu beharko . dituzte irtenbide hauek kontutan. Izan ere, hain kutsagarriak diren erreka fosilak baztertzeko joera nagusituko beharko da.

Badira lanpostu a\$ko sor ditzaketen bestelako sektoreak. ere: erreziklaia, nekazal eta arrantza politika, basoen hustiraketa, aisia eta turismoa, habitatarenikerketa, kontrola eta kudeaketa,,,. Garapen atzerakoi eta antiekologikoaren atzaparretatik ateratzera animatuko diren herrialdeek oso perspektiba onak dituzte. Eramangarriagoa den ekonomiak. etekin handiak ekarriko ditu ingurugiroari zein ekonomiari berari. Transizioa, hala ere, ez da erreza . izango.

Ekoizpen mundu horretan ekoauditoreak ezar litezke. Horiek produktoek, prozesuek eta erabilitako materialek ingurugiroan duten inpaktoa aztertuko dute. Honela, langileek eta gertu dc:iuden komunitateek aurre egin aha l izango diote lan-txantaiari. Hau, hala ere, ez da irtenbiderik hoberena. Lehen-lehenik mugimendu ekologista eta kontsumoarl lanari zein osasunari lotutakoen arteko hurbilketa bultzatu behar da. Hemen ere ezin dugu iniziatiba betiko sektoreen gain utzi; ez eta kanpotik ezarritako garapen-bitartekoen edo nazioarteko ekonomiaren haundi-maundiren gain ere. Sektore nagusiek eta administrazio erregionalek garapen alternatiboa sortzeko gaitasun-eza erakutsi dute. Hortaz, herri indarren esku geldituko da etorkizuna era sortzailez bultzatzea.

9. Lanaren munduko ardaftza

9.1. Gizarte eta lan garapenarako esparru berria

Gaurrengungo ekoizpen sistemek sortu dute langabezia. Gure aroko gaitz sozialik handiena, zalantzarik gabe. Langabeziaren kopuruak zenbatzeko bide ofizialek erabiltzen dituzten metodoek bere benetako tamaina izkutatzen dute. Ekoizpen eta merkatueninternalizazioa nagusitzen den bitartean, planetan lagun askok eta askok ez du lanik. Are gehiago, «hiritartasun» kontzeptua bera lana izateari loturik aurkezten digute. Egoeraren larritasuna adierazteko hona hemen datu bat: gaurregun lan produktiboetan ematen den denbora 15 urtetik gorakoen artean banatuko bagenu, emaitza ez litzateke ~estatu metropolitanoetan- 3 ordufik gorakoa izango. Kontraesano sakona da. Honi loturik, gainera, hainbat fenomeno aipa genitzake: produktibitatearen etengabeko hazkundera, estatu gehienetako lan baldintzek -materialak izan ala ez- jasan duten degradazioa, langileontxirotzea (are gehiago nagusiekin alderatuz gero), eta azkenik, langabeziak (gizarte gaixotasuna deritzogunak) dakartza'n ondorio sozial eta indibidualen hazkundera. Ekoizpen ereduaren degenerazio-prozesua dela eta, lan munduko hainbat gizarte-mugimendu (gehienak agian) lantegietako mugen barruan gelditu da.bere sinesgarritasun espezifikoa zaindu nahian. Gauzak horrela, langile finkoen alorretara mugatu dute bere iharduera, arlo horiekminoritarioak direla ahaztuz. «Krisialditik irtetetearekin» konformatzen diren eskemak kolokan jarri behar ditugu. Hauxe da garapen-eredu berri bat lortzeko bide bakarra. Ekonomia ekonomikoa eta bere parafernaliaren ohiko adierazgarriak ere kritikatu behar ditugu: BPG (Barne Produktu Gordina), produktibitate-indizea, inflazio-mailak, eta abar. Hauek ez diote dagoeneko errealtate ekonomikoari erantzuten. Izan ere, teknologia informatizatuak sartu zirenez geroztik lana ez da soilik eskulana. '

Estatu aurreratuenetako ekonomia «berpizten» edota «suspertze'n» ari omen da. Horrek, ordea, ez du esan nahi krisialdiaren amaiera gertu dago,enik. Horrelako leloak guztiz faltsuak dira. Hainbat pertsona, automatizazio sistematiko eta orokortua del a medio, ondasun eta zerbitzuen produkzioetik at jarraitzen dute. Are gehiago, joera hori larriidgotu egin da. Orain arte lan finkoa zuten hainbat sektore (kualifikatuko langileak, arduradun ertainak, zerbitzu

sektorekoak) pairatzen hasi dira egoeraren larritasuna. Honelako krisialdi baten aurrenezer gutxirako balio dezake Alemaniako Banku Federalaren interes-tasakjeitsi diren ala ez, edota Japoneko merkatal balantzearen nondik norakoak. Izan ere, ekonomiaren ikuspegi anakroniko batean oinarriturikjendea liluratzeko proposatzen dizkiguten ameskeriek ez garamatzate inora.

Hau honela, Alemania eta Britcinia handiko sindikatuen proposamenek eta hainbat lorpenek politika ekonomiko eta sozial berri baten esperantzak sorrarazi dituzte (Alemanian lanerako ordu' kopurua 35era jaistea, esate batera,ko) Denan den, entpresariak hau onartzearen truke hainbat ordain eskatu dute. Hauek gizarte ikuspegia ezabatzea dute helburu eta beraz ez dira onargarriak (nondik inora.

Entpresariak, orohar, lan murrizketa eta enpleguaren malgutasuna lortzeko neurriak bultzatzen ditu. Lan murrizketak hainbat aide positibo. izan zezakeen. Entpresarien ikuspegi antisozialek, ordea, honen balizko onuragarritasuna ezabatu egiten dute. Egia bada 15 urtetik gorako hiritarroi hiru bat ordu lan dagokigula, zergaitik ez beste modu batean banatu? Hala eginez gero, denok izango genuke ' lekua produkzioaren munduan eta denok izango genuke denbora libre gehiago. Entpresariak ez dute hau onartuko. Beren ekoizpen sistemaren durkakoa da. Euren ustetan, gutxiengo batek kontrolatu behar du ekonomia. .

Gizarteak errenta eta lanaren berbanaketa behar du Handik bakarrik etorriko da guztiontzako bizimodu hobea. Gaurrengungo ezberdintasun handi haiek dira,hain zuzen ere, gatazka guztien iturburua. Merkatua eta ekoizpen sistema zaharkiturik dago, zarrastalakerian eta hondamendian du oinarria. Arrazionalitu beharra du.

9.2. Dagoen lanaren berbanaketa.

Arazoa konpontzeko benetako perspektiba demokratikoak gizarte mugimenduan oinarritu behar dira. Eztabaidaren zaGalkundea da, bestalde, horietara hurbiltzeko bidea. Garapenerako alternatiba bat eraikitzeak Euskal Herrian bi faktore hartu behar du kontuan: autodelimitazioa eta' autodisposizioa. Hortaz, botere politiko eta ek"onomikoeidagokienez, gure proposamenei gorputza ematen hasi behar diegu.

Errenta eta lanaren banaketa ezinbestekoa dugu. Gaurrengungo banaketaren oinarriak baztertu behar ditugu. Oinarri hauek lanaren lege eta arautegietan zein Estatu sozialaren ihardueran dute muina. I (Estatu soziala:' neurri fiskal, subsidio ~ta era guztietako laguntzO soialen bidezko berbanaketa. Era askotako laguntzak aipatzen dira bertan: langabeentzakoak, sektore pobreenei zuzendutakoak, jubilazioa bera edota gazteen eskolarizazioarekin zerikusi duten neurriak, ...)

Ez gaude estatu sozialaren aurka. Estatuak, dena den, aspaldian \Jko egin diete honen alderdi aurrerakoei. Guk aldarrikatzen dug una honako hau da: Euskal Herriko politika soziala lanaren errenta eta errenta sozialaren binomioaren gainean eraikibeharra dago. (Errenta ~soziala: hiritartasun errenta, bermatutakoa). Honek, ezinbestez, gizarteak lanean dueneskuhartzale ulertzeko modu berria ekarri digu.

Hiritar guzti-guztiok dugu lan egiteko eskubidea. Estatu demokratikoak eskubide hori bermatu behar du, gutxiengo baten eskutan gelditzea ekidinez. Honek entpresarien gizarte-sektorea kontzepzio ezberdina dakar. Entpresariak ekoizpen sektorean protagonista papera , bereganatzen dute, iharduera ekonomikoaren dinamizatzaile gisa.

Gaurregun, lan-indarra langabeziaren txantaipean ari do funtzionatzen. Aldibaterako lanak hiritarra eta ekoizpen-sektorearen arteko harremanen degradazioa dakar. Ekoizpen munduan disziplina hiru faktoreri dago loturik: lanaren malgutasun arbitrarioari, funtzioen araberako iordainketari eta hierarkia kapitalistari. Guzti honi buelta eman behar zaio. Lan-murrizketen ondorioz libre geldituko den den bora ezin dugu merkantilizazioaren hatzaparretan erortzen utzi. Aisiaren merkatua bertan dago, zaino Helburu bakarra du: betiko eredu indibidualista, antidemokratiko, alineatzaile eta askotan anti-kologikoak bersortzea. Gizarte mugimenduok gdrapenaren zama zahar jberri horiek gaudituko dituen proiektu sozial baten inguruan bildu behar gara.

Zortzi orduko laneguna ezartzea aldaketa itzela izan zen. Antzeko beste erabakiren baten premian gaude. Lan banaketak norbanakoen astia ezezik soziala ere liberalizatzeko aukera eman . diezaguke. Eta gainera, kosto ekonomiko handirik eragin gabe. Honez gain, gaurregun marjinaturik dauden sektore guzti horiek lan produktiboetan aritzeko aukera izango dute.

Errenta sozialak -lanetik aparte- lan murrizketak direla eta sortuko den errenta galerak konpentsatu beharko du Honek aldaketa kultural sakona dakar. Gaurregungo mentalitatea iraultza industrialarekin batera sortutako soldata-ereduaren arabera egituratzen da. Bertan lana zen (da) jabetzarik ez duten klaseentzako sozializazio modu bakarra.

Egun, l'azioartean, era guztietako ondasunak ekoizteko intentsitateak eta kalitateak pentsaera hau eraldatzeko bidea ematen dute. Informatika, errobotika, telekomunikazioak eta bioteknologiari zabalkundeak horretarako aukera emateh duo

Estatu metropolitanoetan, familia-errenten '7'o25etik '7'o35era era askotakogizarte-laguntzez osaturik dago. Estatuak errenta kopuru handi bat berbanatzen du dagoeneko. Hau, behin aldaketa-eredua aldatuz gero, errenta sozialaren oinarria izan liteke.

Nekazaritzan, esate baterako, hafnbat herrialdetan, familiaerrentaren '7'060 baino gehiago Gizarteak hartu du bere gain. Hau politikasozial etaekonomiko zehatz baten ondorioa da. Frogatuta dago, beraz, lana etaerrenta sozialaren artean malgutasun handia egon daitekeela. Egia da, hala ere, populaziaren sektore txiki batetaz ari garela.

Dena den, Estatuak diru kopuru handiak erabiltzen dituzte ekolzipenarekin zerikusirik ez duten ihardueratan edota ,okerragoa dena, zentzugabeko kompetentzia interestatdia mantenduz (ikerketa-garapen gastuak, gastu militarrik, estatu polizialaren kostoak). Azpimarratu beharra dago, esate baterako, estatu poliziala mantentzeak dituen kostoez ari garenean, ezberdintasun sozialak direla -hein handi batean- horieh errudunak. Ezberdintasun hauek, bestalde, gaurregungo egitura eta lana zein errenta sozialaren \ zentzugabeko banaketaren ondorio dira. .

1

,l

!

«Hiritartasun»~errentak aldaketa itzela eskatzen duo Hau posiblea izango bada, arlopsikosozialek eta kulturelek ere aldaketak behar dituzte.Izan ere arlo ekonomikoan ez da batere irrealista planteatzen ari garena. Hori bai, hasiera eman behar zaio eztabaidari.

Bi izango dira lanaren banaketa-prozesuaren Oinarriak ezarri beharko . dituztenak: gizarte mugimenduak batetik eta sektore produktiboa

bestetik. Azken honentzat oso jauzi interesgarria izango da, egun arte, lan finkoa zuten langileon interesak kudeatzea izan baita bere iharduera nagusia. Honela, gizarte mugimendu guztien artean, demokrazia erreala ekarriko duen dialektika sortuko dugu. Demokrazia hori hiritarraren botereanizango du oinarri, eta ez bere eskubideen administrazioan.

10. Lehenengo sektorea

10. 1. Euskal Herriko kostaldea

Gure kostaldean, ingurugiroaren zein sozio-ekonomiaren ikuspegitik, jasaten ari garen krisialdiak bi oinarri ditu: ingurugiro mailako arazo zaharren metaketa batetik eta proiektu berriak bestetik. Honen ondorioz, baliteke gure itsasertza erabateko hondamendi fisiko nahiz ekologikoaren ateetan egotea.

Europako Arrantzarako Politikak (PPC) eragin duen Europako ekonomiaren berrantolaketak arrantzen gainbeheraka ekarri digu. Baxurako arrantza tradizionalaren heriotza eta herri arrantza-eremu ingurune sozialaren hondamena dakartza. Bertan, 65.000 familia bermoldaketara ekin beharko diote, hain arriskutsua izan daitekeen turismo-sektoreari helduz.

Badira, bestalde, gure arrantzu sektoreari kaltea dakartzkion bi faktore: gehiegizko hustiapena eta kutsadura bera. Horietaz ohartu gahar gara. Horren aurkako neurriak bultzatzen ez baditugu, itzulerarik gabeko egoera batean aurki gintezke, bai sektoreari begira bai Euskal Herriko etorkizunari begira ere.

Alturako sektorean ere industrializazioa sartu da dagoeneko: horra hor gehiegizko hustiapena legatza, bakaladilla, txipiroia, itsas sapo, takarta eta abarrekoen stock-ak suntsituz. Bestalde, komertzializatu ezinik, asko dira harrapatu ondoren itsasora hilda botatzen diren espezieak: askotan harrapatutakoaren %70. Bestalde, baxurako arrantza ere arriskutan dago. Industrializazioa ere bertara helduko du aurki, orain arte artizanala eta oreka ekologikoari errespetu osoa izan dion sektore honetara, alegia. .

